011-Aldibereko Plan Sektorial eta Lurralde Planen gainean aurreikus daitezkeen ondorioak

ekolur

7. ALDIBEREKO PLAN SEKTORIAL ETA LURRALDE PLANEN GAINEAN AURREIKUS DAITEZKEEN ONDORIOAK

7.1. EAEko Lurraldearen Antolamenduaren Gidalerroak[36]

Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 11ko 28/1997 Dekretu bidez onartu ziren behin betiko Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Lurraldearen Antolamendurako Gidalerroak (LAG), EAEko "*lurraldean jarduten duten eragileen jarduera ekonomikoak eta sozialak bertan kokatzeko prozesuak arautzea eta arloko politikak formulatzeko eta gauzatzeko erreferentzia-esparrua eraikitzea*" helburuarekin. Kontuan hartzekoa da, 2018ko azaroaren 21ko Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren Aginduak, behin-behineko onarpena eman ziela Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde-Antolamenduaren gidalerroak berrikusteko dokumentuari. Aurretik, bizitegi-kuantifikazioa kalkulatzeko metodoa aldatzea onartu zen 4/2016 Dekretuaren bidez, urtarrilaren 19koa.

Hemendik abiatuta eta ingurune fisikoa oinarri eta euskarritzat hartuta, LAG-ek Lurralde Antolamendurako Eredua osatzen duten proposamen integratuen multzo bat eskaintzen du, eta aipatutako prozesu horiek bideratzeko eta erregulatzeko irizpide eta arauak finkatzen ditu.

LAG-ek Udal Antolamenduan zuzenean aplikatuko diren zenbait zehaztapen lotesle ezartzen dituzte, horien artean honakoak:

- Bizitegitarako lurzoruaren eskaintzaren gehienezko muga zenbatekotzea, behin-behineko izaeraz. Usurbilgo udalerriaren kasuan 2014-2022 planeamendu-denboraldirako gehienez 985 eta gutxienez 493 etxebizitza planifikatzeko aukera.

Gainera, LAG-ek Lurraldearen Zatiko Planak eta Lurraldearen Arloko Planak idazterako orduan erreferentzia izango diren beste zehaztapen batzuk ere ezartzen ditu. Ildo honetan, LAA-en 20. atalean, Jardutze-Eremu edo Eremu Funtzionalak (EF) zedarritzen dira, EAE eta udalerrien arteko eskala moduan. Usurbil, Gipuzkoako beste 12 udalerrirekin batera, 'Donostia' (Donostialdea-Bidasoa Behera) EF-ren zati da.

Kopuruari dagokionez, Usurbilgo HAPO berrikusteko Aurrerakin dokumentuaren arabera, "*(…) LAG aldaketak proposatutako gehienezko eta gutxieneko kopuruak 1997an onartutakoak baino errealagoak direnez, hauek kontutan hartzea aproposagoa izango da*". Beraz, Plan Bereziaren proposamenek bat egiten dute LAG-en berrikusteak bultzatzen duen ereduarekin.

7.2. Donostia (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Eremu Funtzionaleko Lurralde Zatikako Plana[37]

LAG-en garapen plan bezala, LZP-ek hiri antolamenduak uztartzen dituzte haien zehaztapen berdinetan, existitzen direnetan aldaketak eragin ditzaketelarik. Donostialdeako LZP-k behin betiko onespenaren

[36] Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eusko Jaurlaritza.
[37] Donostiako Eremu Funtzionalaren (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Lurralde Plan Parziala. Eusko Jaurlaritza & Gipuzkoako Foru Aldundia. 2016.

2016ko uztailaren 27ko Dekretuak honako zehaztapen hauek egiten ditu Usurbilgo udalerriarren baitan Aginaga auzoari dagozkionak:

3. Kap. Ingurune Fisikoaren Antolamendua	Aginagako Nekazaritza eta Abeltzaintza Eremu Estrategikoa	
4. Kap. Mugikortasun eredua. Garraio eta komunikabide sareak.	LPP-ren 3 eta 3.1 planoan markatutako txirrindulari eta oinezkoentzako ibilbideen oinarrizko hiriarteko konexio sarea. Burutugabeko edo ikerketen zain dauden tarteak. Oinezkoen eta bizikleta bideen sareko proposamen berriak.	
	LPP-ren 3, 3.2.1., 3.2.2, 3.3.1 eta 3.3.2. planoetan markatutako errepide eta trenbide sareen elementuak. ETS Sarea. Egin daitekeen tarte guztietan trenbidea bikoiztea.	
6. Kap. Hiri ingurunearen antolamendu orokorra	Hiri multzoen muga LPP-ren 5. planoaren arabera	
8. Kap. Etxebizitza parkearen antolamendua	LPP-ren horizontean dagoen Usurbilen planifikatutako etxebizitza parkearen hazkundea 649/878 etxebizitza berrietara egokitu dira.	

31. Donostia LPP-ren zehaztapenak. Iturria. Lurraldearen Plan Partziala.

Arestian jasotako Donostia' EF Lurraldearen Plan Partzialak egin dituen zehaztapenek ez dute Plan Bereziko eremuari eragiten. Etxebizitza-kopuruari dagokionez, Plan Berezia bat dator Usurbilgo HAPO-ean jasotako proposamenarekin, eta hori bateragarria da LPPk 2022 urterako zehaztutako etxebizitza kopuruekin.

7.3. Lurralde Plan Sektorialak (LPS)

7.3.1. EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala[38]

Ibai eta erreken ertzak antolatzeko LPS isurialde kantauriarrari dagokionez abenduaren 22ko 415/1998 Dekretuaren bitartez jaso zuen behin-betiko onarpena, azaroaren 19ko 449/2013 Dekretuak aldatua izan delarik. Antolamendu esparrua EAEko ur-ibilguen bi aldeetan 100 metroko zabalerako lurzoru-zerrendek osatzen dute, iturburutik bokaleraino.

LPS-k ez dio Plan Bereziari eragiten; izan ere, Plan Bereziaren eremua LPS-ren antolamendu-esparrutik kanpo dago eta.

7.3.2. EAEko Itsasertza Babestu eta Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana[39]

Martxoaren 13ko 43/2007 Dekretuaren bitartez jaso zuen behin-betiko onespena EAEko Itsasertza Babestu eta Antolatzeko LAP-k. Plan honen antolamendu esparrua Kostaldeei buruzko Legeak ezarritako 'Eragin Gunea' da (itsasertzaren barne mugetatik hasita 500 m lehorrerantz neurtuta). Ibaiertzetara ere zabaltzen da eremu hau, itsasaldiek eragina duten lekuraino; Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, 5 metroko kota itsasoaren mailaren gainean.

LAP honen aplikazio eremuak, aldiz, ez ditu hiri-lurzoru edo lurzoru hiritargarriak kontuan hartzen (LAP-ren araudiaren 5. artikulua). Beraz, Plan Bereziak antolatutako eremua ez da LAP honen aplikazio eremuaren barruan, baina bai inguruko landa eremuak.

[38] Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eusko Jaurlaritza.
[39] Tecna SL, 2007. EAEko Itsasertza Babestu eta Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana. Behin betiko onarpena. Eusko Jaurlaritza.



32. Itsasertza Babestu eta Antolatzeko LAP-k ezarritako kategoriak. Iturria. Itsasertza Babestu eta Antolatzeko LAP

7.3.3. EAEko Hezeguneen LAPa

Hezeguneen LPSak, behin betiko onarpena uztailaren 27ko 160/2004 Dekretuaren bitartez izan zuen, eta urriaren 30eko 231/2012 Dekretuarekin bidez aldaketak jasan zituen. LPS honek, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen zehaztapenak garatzen ditu, EAEko hezeguneen inbentarioaren eta sailkapenaren bidez, eta antolakuntza espezifikoa behar duten hezeguneetan gune horien gaitasunaren araberako erabilerak eta jarduerak arautzearen bidez. Halaber, LPSak gomendio eta irizpide orokor batzuk ematen ditu, inbentariatutako hezegune guztiak babesteko.

Plan honek inbentariatutako hezegunerik ez da identifikatu Plan Bereziak antolatutako eremuan. Beraz, Plan Bereziak ez du inolako eraginik izango EAEko Hezeguneen LAP-ean.

7.3.4. Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala[40]

LPS hau 2014an onartu zen behin betiko, eta antolamendu-eremua EAE osora iristen da, aldez aurretik zeuden hiri-eremuetara salbuetsita. Aldez aurretik zeuden hiri-eremuak hauek dira: dokumentu hau behin betiko onetsi zen egunerako udal-planeamendu orokorraren arabera hiri lurzorua edo lurzoru urbanizagarri gisa sailkatuta zeudenak. Beraz, Plan Bereziaren eremua ez da LPS-ren aplikazio eremuan sartzen.

[40] Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila. Eusko Jaurlaritza.

7.3.5. Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana[41]

LAP honek behin-betiko onespena jaso zuen abenduaren 21eko 262/2004 Dekretuaren bitartez, jarduera ekonomikoetarako lurzoru publikoa sortzeko eragiketak zein kokapenetan gauzatuko diren identifikatu eta adierazitako jarduketen kuantifikazioa eta bete-beharreko ezaugarriak zehazteko xedearekin.

LAP honek Usurbil 'jarduera ekonomikoetarako lehentasunezko intereseko udalerri' gisa sailkatzen du eta udal plangintza berrikusteko prozesuetarako, lurzoruaren kalifikazioari buruzko honako irizpideak proposatzen ditu:

- "*Gaur egun 'industriarako' edo 'jarduera ekonomikoetarako' kalifikatutako lurzoruak 'bizitegirako' edo antzeko erabilerarako birkalifikatzeko prozesuak onartzea soilik aldez aurretik eta dokumentu egokien bidez justifikatzen denean ezintasun teknikoa, ekonomikoa edo hirigintza-arlokoa dagoela hautabidezko hirigintza-eragiketa bat planteatzeko, lurzoru horiek jarduera ekonomiko berriak hartzeko eremu gisa birmoldatzekoa, dagokion aparkaleku-zuzkidurarekin hornituta. (...)*".
- "*''Industria-lurzoruaren' edo 'ekonomia-jardueretarako lurzoruaren' hirigintza-kalifikazioa aldatu eta 'bizitegi-lurzoru' edo 'zuzkidura-lurzoru' gisa kalifikatzeko prozesu berriak tramitatzeko, betiere, aldi berean udalerrian edo eskualde-egituran hiri-plangintzari 'ekonomia-jardueretarako' lurzoru berriaren azalera baliokidea gehitzeko eskaera*".
- "*Azkenik, LAP honek 'ekonomia-jardueretarako' kalifikazioa duten lurzoruak beste erabilera alternatibo batzuetarako birkalifikatzea aholkatzen ez dueneko lurzoru-eskuragarritasun txikiagoa duten (...) eskualde-egituretan (...) jarduera ekonomikoaren euskarri den lurzoru urria iraunarazteko asmoz, industria-eremu zaharkituak birmoldatzeko burutzen diren prozesuak lehentasunez ekonomia-jardueretarako eta zuzkidura edo bizitegi gisako eraikuntzarako eragiketa mistoetarantz bideratzea*".

7.3.6. Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana[42]

Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Planak (GBBLAP), 2013ko ekainean behin-betiko onarpena jaso duenak, Gipuzkoako bizikleta bideen oinarrizko sarea (GBBOS) sortzea proposatzen du, egun erdizka egin dena. GBBOSaren helburu nagusia da bizikletaren erabilera hiri barruko zein hirien arteko eguneroko garraioan integratzea, horrenbestez, motorrik gabeko mugikortasun modu hau indartzeko eta sendotzeko. Gainera, GBBOSak izaera egituratzailea ere badu, Lurralde Historikoko eskualde, eremu funtzional eta hiri-inguru nagusi guztietatik igaro eta horiek konektatzen baititu.

Oinarrizko Sareak 439 kilometroko luzera izango du, eta bederatzi ardatz nagusitan egituratuta dago. Horietako batek, Donostia-Mutriku ibilbideak zehazki, Usurbilgo udalerria zeharkatzen du Txokoaldetik pasatuz (ikus 22. Irudia, *7.1 Hiri-ingurumena: mugikortasuna eta irisgarritasuna*).

GBBLAP-ren arauen atalak erabilerak arautzeko proposamena egiten du, eta ezartzen du udalerriek, bere plangintzak egitean, 'Bizikleta bidezko Komunikazio Sistema Orokor' kalifikazioa atxiki behar dietela,

[41] Administrazio eta Lurralde Plangintza. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. Eusko Jaurlaritza.
[42] Mirua21 & EKOLUR SLL, 2013. Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala. Garapen Iraunkorreko Departamentua, Gipuzkoako Foru Aldundia.

ezinbestean, bizikleta bide horiei. Oinarrizko Sarearen konektagarritasuna bermatzeko, bideak igarotzen dituzten udalerrietako sarrera eta irteera puntuak ezartzen ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta puntu horiek lotzen dituzten udal sareetako hiribarneko ibilbideak proposatzen ditu.

7.3.7. Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpiegiturak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana[43]

Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpiegiturak antolatzeko LAP-k behin-betiko onespena jaso zuen uztailaren 21eko 24/2009 Foru Dekretuaren eskutik. Honen helburu orokorrak hauek dira: batetik, Gipuzkoako hiri-hondakinen etorkizuneko kudeaketa lortzeko beharrezko azpiegituren kokalekuaren aurreikuspena jasotzea, betiere arauzko esparruan barne hartzen diren Europako, Estatuko eta Autonomia Erkidegoko prestakuntza-dokumentuetan ezarritako iraunkortasun-irizpideei jarraituz; eta, bestetik, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralean finkatutako helburuei erantzutea.

LAP honek ez du Aginagan hiri-hondakinetarako azpiegiturarik proposatzen.

7.4. Udal plangintza

Usurbilgo udalerrian indarrean dagoen araudia 2013. urteko otsailean onartutako Arau Subsidiarioen Testu Bateratua da [AASSTB][44]. Testu honen oinarria 2004 urtean Foru Aldundiak behin betiko onartutako “Usurbilgo Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspena” dokumentua da, salbuespenekin onartua. Urte hartatik aurrera Foru Aldundiak ezarritako hainbat moldaketa eta zuzenketa egin behar izan dira, azken dokumentua 2013 urtean onartu eta argitaratu den arte (GAO -172 zk).

Indarrean dagoen araudiak Aginagako A-010“Errazti”, A-011“Soroa”, A-92.1 “Sagastiluze” eta A-93“Errastigaina” eremuetako antolamendu xehakatua ezartzen du. Aipatu eremutako antolamendu xehakatuak ez dira gaur arte garatu, nahiz eta 2004. urtean onartuak izan.

2014 urtean Usurbilgo Udalak Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren (HAPO) idazketa prozesua hasi zuen. Prozesu parte-hartzaile horren barruan, besteak beste, Aginagako bizilagunekin hainbat bilera egin ziren. Bilera horietan egindako lanketaren ondorioz Usurbilgo udalak A-010“Errazti”, A-011“Soroa”, A-92.1 “Sagastiluze” eta A-93“Errastigaina” eremuetako antolamendua birformulatzeko Plan Berezi hau idazteko konpromisoa hartu zuen.

Plan Bereziaren helburuak Usurbilgo HAPOren berriskupena zehaztutako irizpideak jarraituz landu dira. Bat datoz, beraz, plangintza orokorrarekin. Jarraitutako ildo nagusiak honakoak:

Etxebizitzak

1. Usurbildarren beharrei erantzuten dien etxebizitza kopurua eta tipologiak proposatzea.
2. Donostiako Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala eta Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak ezartzen dutena betetzea etxebizitza kopuruari buruz, besteak beste.
3. Indarrean dagoen plangintzan aurreikusten diren etxebizitza kopurua gutxitzea.
4. Eraikita dauden etxebizitza auzoak birgaitzea, berritzea, birsortzea.

[43] Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia.
[44] Usurbilgo Plangintzako Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspenaren Testu Bategina.

5. Hiritartutako lurraren optimizazioa eta lur berriak ahalik eta gutxien okupatzea.
6. Eraikuntzak eta urbanizazioak jasangarritasun-irizpideekin eraikitzea eta birgaitzea.

Jarduera ekonomikoak

7. Herri-merkataritza indartzea herrigunea bizi-berritu asmoz.
8. Eraikita dagoen jarduera ekonomikoetako lurzorua birsortzea, berrerabiltzea eta birgaitzea.

Berdeguneak eta espazio publikoak

9. Berdeguneen eta espazio publikoen sarea handitzea eta egokitzea.

Mugikortasuna

10. Mugikortasun jasangarria bultzatzea.
11. Errepide sarearen egokitzea, auzoetako sarrera-irteerak hobetzeko eta ibilgailuen trafikoa herrigunetik ahal den neurrian aldentzeko.
12. Auzoetako aparkaleku beharrei erantzutea.

Zerbitzu-azpiegiturak

13. Saneamendu sarea berritzea.
14. Energia berriztagarriak sustatzea.
15. Argiztapen publikoaren sistemen diseinuak irizpide jasangarriak aintzat hartzea

7.5. Aztertutako esparruan eragina izan dezaketen beste plan edo programa batzuk

7.5.1. EkoEuskadi 2020[45]

2011an onartua, EkoEuskadi 2020 da Euskal Autonomia Erkidegorako Garapen Iraunkorraren Estrategia 2020 urtera begira. Jasangarritasun ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa bermatze aldera, sektore-politiken multzoan integratzeko plataforma izateko eginkizunarekin, zeharkako izaera duen baliabide honek 9 helburu estrategiko finkatu ditu:

1. *Euskadi ekonomia berritzaile, lehiakor, ekoeraginkor eta ireki bihurtzea.*
2. *Euskadi erabat integratzailea den eta enplegu, hezkuntza, prebentzio zein elkartasun arloetan kohesionatuta dagoen herrialde gisa sendotzea.*
3. *Gizarte babeseko sistemak indartzea, garapen harmonikoa, osasungarria eta bidezkoa bermatzen jarrai dezaten.*
4. *Gure natur baliabideei eta biodibertsitateari eustea, lurraldea, azpiegiturak, ekipamenduak eta etxebizitzak errespetuz eta orekaz antolatuta.*

[45] Garapen iraunkorra. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. Eusko Jaurlaritza.

5. *Jatorri fosileko energiekiko mendekotasuna minimizatzea, berotegi efektuko gas isuriak murriztea eta klima aldaketaren eraginak minimizatzea.*
6. *Lurralde barruan egituratzeko eta kanpoaldearekin lotura lehiakorra izateko aukera emango duen mugikortasun integratuko eredu jasangarriago bat garatzea.*
7. *Kalitatezko hezkuntza eta balio sistema sortzea, eskola arrakasta lortzera bideratutakoa, malgua eta, hezkuntza zein trebakuntza edukien aldetik, lan merkatuak eta gizarteak bizitza osoan zehar eskatzen dituzten gaitasunetara egokitua, jasangarritasuna arlo guztietan barne hartuta.*
8. *Berritzailea, eraginkorra, abegitsua eta herritarrentzat gardena den administrazio publiko bat ezartzea.*
9. *Euskadik Milurtekoko Helburuak betetzen, eta, oro har, herrialde txiroenek garapen jasangarria lor dezaten laguntzea.*

4. eta 6. helburu estrategikoak lurralde eta ingurumen bikaintasuna lortzeko estrategien artean bildu daitezke. Horien barnean, Plan Bereziaren proposamenarekin lotura duten jarduera-ildo hauek azpimarratu daitezke:

- Hiri trinkoaren eredua bultzatzea.

- Ekosistemen eta natur baliabideen gaineko presioa murriztea.

- Landa garapen integrala sustatzea, lurraldearen eta bertan bizi direnen balio naturalak babesteko.

- Garraiobidea jasangarriagoak sustatzea.

- Garraiobideak mugikortasun baldintza egoki eta seguruetan erabiltzea lortzea, azpiegitura eta zerbitzu integratuetan oinarrituta.

7.5.2. Usurbilgo Tokiko Agenda 21[46]

2001 eta 2003 bitartean Usurbilgo Tokiko Agenda 21 prozesuaren barnean, Jasangarritasunari buruzko Diagnostikoa landu zen eta 2005ean Jasangarritasunerako Ekintza Plana aurkeztu zen. Azken honetan 6 ildo estrategiko definitu ziren, bakoitzaren barnean programa ezberdinak finkatuz:

1. Natur baliabideak zaintzea: ura eta energia
    a. Uraren zikloa: integrala eta jasangarria
    b. Etorkizunerako energia
2. Kutsadura aztertzea eta hari aurrea hartzea. Hondakinak gutxitzea
    a. Etxeko hondakinen eta parekoen gaikako bilketaren kudeaketa hobetzea
    b. Kutsaduraren prebentzio integrala
    c. Zaratari aurre egitea
3. Herrian mugitzeko eta ingurune fisikora iristeko hobekuntzak egitea

[46] Haizea Ikerketa SL (2001) & Ortzadar SL (2003). Usurbilgo Tokiko Agenda 21. Jasangarritasunari buruzko diagnostikoa.

   a. Joan-etorri arinagoen alde
   b. Garraio alternatiboaren alde
   c. Dena denon irizpidean

4. Lurzorua eta natur guneak babestea eta baserri ingurunea sustatzea
   a. Hiri lurzorua eta lurzoru urbanizagarria ere jasangarritasunez
   b. Lurzoru urbanizaezina ere jasangarritasunez
   c. Interes ekologiko, geologiko edo geomorfologiko bereziko guneei balio handiagoa ematea
5. Udal zerbitzuen kudeaketa jasangarria izatea
   a. Udal jasangarria
   b. Ingurugiroari buruzko araudia erregularizatzea
6. Ingurugiro heziketa eta ingurugiroari buruzko informazio zerbitzua sustatzea
   a. Ingurugiroari buruzko informazioa sustatzea
   b. Udalak ingurugiro heziketaren alorren egun duen eskaintza zabaltzea

Guzti hau aurrera eramateko 84 jarduera ezberdin zehaztu ziren, ondoren bai interesaren aldetik baita bideragarritasunaren aldetik ere baloratu ziren eta azkenik lehentasunak finkatu ziren.